



GUKA.EUS

**Osteguna,
2026ko irailaren 3a**

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.
Lege Gordailua: D 652-2024. ISSN: 3101-0407.
Zuzendaria: Ihintza Elustondo.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukt.eus.
Webgunea: guka.eus.
Zuzendariordea: Aritz Mutiozabal.
Publizitatea: Urola Kosta: 673 69 90 95.

Aia-Orio: 607 49 87 28. orio@ukt.eus.
Aizarnazabal-Beizama-Errezil-Zestoa: 607 49 87 22. zestoa@ukt.eus.
Azkoitia: 633 24 39 09. azkoitia@ukt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 22. azpeitia@ukt.eus.
Getaria: 607 49 87 28. getaria@ukt.eus.
Zarautz: 607 61 52 39. zarautz@ukt.eus.
Zumaia: 623 13 22 54. zumaia@ukt.eus.

GIPUZKOA

Foru Aldundia

Babestutako hedabidea



Guka diruz laguntzen duten

erakundeak. Udalak:

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama,
Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Guka-ko bezeroen
arreta zerbitzua:
943-30 30 35

Goiza



Arratsaldea



Temperatura

26°
16°

Mareak

Itsasgora 09:16-21:48
Metroak 3,95-3,91
Itsasbehera 03:07-15:32
Metroak 1,31-1,41

Giltzurruneke gaixoeke osatzen duten Alcer Gipuzkoak mende erdi bete du eta erakusketa ireki du Oxforden.

50 urtez epidemia isilean lagun

-MADDI TXINTXURRETA

Zumaia

Giltzurruneke gaixotasuna duten pertsonen osatzen duten Alcer Gipuzkoak 50 urte bete ditu aurten, eta elkar-
teak sorreratik gaurdaino ibili duen bidea ezagutzera ematea helburu, erakusketa jarri dute Alondegiko Oxford aretoan. Herenegun ireki zuten eta datorren asteartera arte, irailak 8, egongo da ikusgai, egunero, 18:30etik 20:30era.

Elkartek urteurrena ospatzeko antolatu dituen hainbat egitasmoetako bat da asteen Zumaian geldialdia egin-
go duen erakusketa ibiltaria. Ekainaren 5ean, Organo Emailleen Nazioarteko Eguna igaro berrian, 250 lagunek parte hartu zuten urteurrena ospatzeko Hernanin (Gipuzkoa) egin zuten ekitaldian, eta egun horretan erakutsi zituzten informazio panelekin erakusketa ibiltaria sortzea erabaki zuten. Donostiako Ospitalean ikusgai izan dira panelak abuztuan, eta Zumaian astea egin ostean, Gipuzkoako hiriburuko Egia auzora eta Hernanira eramango dute erakusketa.

Oxfordeko erakusketan jarri dituzten informazio panelen bidez, Alcerren historia kronologikoki ezagutzeko aukera izango dute bisitariak, eta elkartearen bueltan antolatu diren pertsonen azken mende erdian egindako lan eskergari erreparatu ahal izango diote.

Alcer Gipuzkoa 1976an sortu zuen giltzurruneke gaixotasu-

nak erasandako talde txiki batek, beren etorkizunaz zuten kezka bultzatuta. Izan ere, duela 50 urte giltzurruneke gaixotasunak artatzeko baliabideak ez ziren gaur egungoak. "Dialisi makina gutxi zeuden eta transplanteak egiteko aukerak escasak ziren", azaldu du Saioa Aramendi elkarteak dietistak. Elkartea sortu zutenetik, eta unean uneko baliabideez gaildi, Alcerreko kideek helburu argia izan dute hastapenetik, Aitziber Egurbide elkarteak administrariak zehaztu duenez: "Giltzurruneke gaixoen eta haien senideen bizi-baldintzak hobetzea".

Laguntza zerbitzuak

Giltzurruneke gaixotasuna duten pertsonen dialisia edo transplantea behar dute bizirauteko, eta transplanterako itxaron zerrenda handia dagoenez, gehienek dialisi bidezko tratamendua jaso behar dute. Hemodialisia deritzona ospitalean egiten dute, eta normalean astean hiru eguntan jaso behar izaten dute tratamendua pazienteei, saioko hiru-lau orduz. Dialisi peritoneala, aldiz, etxean egiten dute pazienteei, kasu gehienetan, egunean hiru bider. Hortaz, dialisiak, eta gaixotasunak berak, hainbat modutara eragin diezaioke pazienteari. "Askok ezin dute lanik egin; pentsa sozializatzeko zer zailtasun izan ditzaket. Elikaduran murrizketak izaten dituzte, eta psikologikoki ere gogorra izan daiteke. Horregatik hitz egiten dugu ez soilik gaixoez, baita familiez ere, haiek ari baitira



Saioa Aramendi eta Aitziber Egurbide, Oxford aurrean. MT.

gaixoa zaintzen", adierazi du Aramendik.

Eragin horiei erantzuten saiatzen da Alcer Gipuzkoa, eta horretarako, 40 urte daramatza hainbat laguntza programa eskaintzen ditu, hala nola, laguntza psikosoziala, familiarren atsedena eta aholkularitza dietetikoa nahiz nutrizionala. "Giltzurruneke gaixoen elkar-
tea da, horregatik, pertsona horiei gaixotasun prozesuan laguntzea da gure helburua", argitu du dietistak. Lau hamarkadatan, 3.909 familia lagundu dituzte Gipuzkoan, eta 26.783 kontsulta egin dituzte. Soilik iaz, 1.170 familia artatu zituzten. "Lan asko da, eta horri guztiari erantzuteko taldea hazi egin da hasieratik hona", aipatu du Egurbidek.

Elkartek Donostian dituen bi bulegoetan (bata ospitalean

eta bestea Amara auzoan) eskaintzen dute arreta. Ospitalean laguntza psikologikoa eta soziala eskaintzen dute. "Adibidez, dialisian dagoen pertsona batek oporretara joan nahi badu, oporretan dialisia egiteko aukera izan behar du, eta hori kudeatzeko gauza pila bat egin behar dira. Makina baten menpe daude. Gu arduratzen gara kudeaketa horretaz", esplikatu du Aitziber Egurbidek. Amaran, berriz, administrazioa eta aholkularitza dietetiko-nutrizionala eskaintzen dute, eta gainera, han du topagunea Elkartze Mugimenduak, elkartearen boluntario sareak.

Hala ere, jende askok organo emailleen elkar-
te gisa ezagutzen du Alcer, ez baita makala alor horretan egiten duen lana. Elkartea sortu eta bi urtera hasi ziren organoak ematearen al-

deko sentsibilizazio kanpainak antolatzen. Hala, Gipuzkoako organo eta ehunen emailleen erregistroa kudeatzen du Alcerrek, eta heriotza ostean emaille izateko borondatea adierazi duten 66.791 lagun izenak zituzten zerrendan 2025a amaitzerako. "Organoak ematea ez da horren erraza. Egoera berezi batzuetan jazo behar da heriotza, eta normalean, ospitalean gertatu behar da. Errazagoa da giltzurrun bat behar izatea, ematea baino, une honetan itxaron zerrenda luzea baitago: Espainiako Estatuan, 5.163 pertsona daude itxaron zerrendan", azaldu du dietistak.

**Lau hamarkadatan
Gipuzkoako ia 3.400
familia artatu ditu
Alcer elkarteak**

Goranzko joera

Giltzurruneke gaixotasun kronikoaren intzidentziaren goranzko joeraz ohartarazi du berriki Munduko Osasun Erakundeak (MOE). "Erakunde horrek esan duenez, ez badugu ezer egiten, 2050. urtea baino lehen heriotza kausen artean hirugarrena bilakatuko da giltzurruneke gaixotasuna", esan du Aramendik.

Gainera, Egurbidek gaztigatu duenez, giltzurruneke gaixotasuna "azpidiagnostikatutako gaixotasuna" da, eta apur bat "ezezaguna" ere bada, nahiz eta adin nagusiko biztanleriaren artean %15eko prebalentzia duen: "Horrek esan nahi du jende askok ez dakiela gaixo dagoela. Horregatik esaten dugu epidemia isila dela".

Horren jakitun, giltzurruneke gaixotasunaren esparruan gehiago ikertzea beharrezkoa dela aldarrikatu dute Alcer Gipuzkoako kideek, eta jakinarazi dute bide horretan pauso berri bat eman duela aurten elkar-
teak: lankidetzak hitzarmena sinatu du Gipuzkoako Farmazialarien Elkar-
tearekin, giltzurruneke gaixotasunari aurre egiteko eta gaixotasun horren inguruan ikertzeko lan esparru bateratua ezartzeko asmoarekin.